



Arartekoaren 2022R-218-22 Ebazpena, 2022ko apirilaren 11koa. Horren bidez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio azter dezala pertsona batek gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozedura batean parte hartzeko egin duen eskaera baztertzeko Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek hartu duen erabakia.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar batek Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde ordezkarieren erabaki baten inguruan egindako kexa bat. Hain zuzen ere, kexagilea ez zegoen ados Getxoko udalerriko gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko egin zuen eskaera baztertzearekin.
2. Kexa-idazkian, kexagileak adierazi zuen %79ko desgaitasuna aitortuta duela, eskuineko beheko gorputz-adarra moztu baitzioten. Gertakari horren ondorioz, A hizkiaz kalifikatutako mugikortasun-baremoa finkatu diote. Orobat, indarkeria matxistaren biktima zela jakinarazi zuen.

Horrela, interesdunaren esanean, bere ohiko etxebizitza saldu behar izan zuen (zazpigarren solairuan zegoen eta ez zegoen igogailurik), irisgarria ez zelako. Beraz, aldi baterako, bere ahizparekin bizitzera joan behar izan omen zuen.

Horregatik, merkatu librean egokitutako etxebizitzarik ez zegoenez gero, kexagileak Getxoko Iturribarrin errentamendu-araubidean gizarte-babeseko 91 etxebizitza esleitzeko hasi zen prozeduran parte hartzeko eskaera egin zuen formalki. Nabarmendu behar da sustapen horrek etxebizitzan guztietatik 4 etxebizitza egokitu erreserbatu zituela mugikortasun urri iraunkorreko desgaitasuna aitortuta zuten pertsoneri esleitzeko.

Gainera, bere erreklamazioarekin batera, Etxebideren web orriko intraneten atzemandako pantaila bat bidali zuen, etxebizitzetako bat esleitu zitzaioela egiaztatzen zuena.

3. Azaldutako guztia gorabehera, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek azkenean erabaki zuen adjudikazio-prozeduratik kanpo uztea kexagilearen eta beraren elkarbizitza-unitatearen eskaera. Ebazpenean arrazoi hau eman zuen:

- "Errolda ez da egiaztatzen Getxo(e)(ko/go) udalerrian aginduak ezartzen duen denboran."

Gauzak horrela, kexagileak berriro adierazi zion Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzari zer zailtasun zeuden etxebizitza egokituak eskuratzeko, eta gora jotzeko errekurtsio bat jarri zion Etxebizitzako sailburuordeari.





4. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak laguntza-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Arartekoak kexagilearen irisgarritasun-arazoen berri eman zion sail horri,. Gainera, informazioa eskatu zuen adjudikazio-prozeduran parte hartzeko Getxoko udalerrian erroldatuta egon beharrari buruz eta baldintza hori ezartzeko justifikazio gisa erabilitako oinarri juridikoei buruz.

Halaber, Arartekoak eskatu zion txosten batean azaldu zezala zer uste zuen udalerrian erroldatuta egon beharraz eta horrek mugikortasuna modu iraunkorren murrizten duen desgaitasuna onartuta duten pertsonentzako gordetako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduran beste udalerrri batzuetako herritarrek parte hartzeko askatasunean daukan eraginaz.

Gainera, Arartekoak sail horri eskatu zion argitu zezala zer gertatu zen kexagileari itxuraz esleitu zioten etxebizitza egokituarekin.

Azkenik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari. Gogoeta horiek, ez errepikatzearren, geroago azalduko dira.

5. Laguntza-eskaera horren erantzuna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren kabineteko zuzendariarena, erakunde honen erregistroan jaso zen, eta horrekin batera Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren administrazio eta zerbitzuen arduradunak egindako txostena ere bai.

Horrela, txosten hartan berretsi zen kexagilearen parte hartzeko eskaera azkenean baztertu egin zela. Erabaki hori oinarritzeko, hauxe adierazi zuen: kexagileak ez zuela egiaztatu Getxon erroldatuta egon zela adjudikazioa abian jarri zuen 2021eko martxoaren aginduan eskatzen zen aldi.

Hori dela-eta, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak honako hau azaldu zion Arartekoari:

“La razón por la que la Orden de 23 de marzo de 2021, del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco prevé en su articulado la exigencia del empadronamiento en el municipio de Getxo es que así constaba en la cláusula segunda del convenio para la promoción de vivienda de protección pública en alquiler en la unidad de ejecución 24-2 Iturribarri-II de Getxo (Bizkaia) firmado el 2 de noviembre de 2017 entre la sociedad pública de Vivienda y Suelo de Euskadi S.A y el Alcalde del Ayuntamiento de Getxo.”

Hala ere, Arartekoari bidalitako txostenean honako hau adierazi zen:





“En el Departamento somos absolutamente sensibles a situaciones como la que se describen. Prueba de ello es la existencia de la previsión contenida en el apartado 3 del artículo 26 que posibilita la participación en promociones que se desarrollan en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma.”

Nolanahi ere, bigarren tarteki honetan adierazitakoaren kontra, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak bere hartan mantendu zuen Getxoko udalerriko gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko kexagileak egindako eskaera baztertzeko erabakia.

Azkenean, etxebizitza itxuraz esleitu izanari buruz, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak zera adierazi zuen:

“En el marco del procedimiento de adjudicación de dichas viviendas se produjo, según nos informan, un error al publicarse en la página web un borrador de trabajo, ya que en ese momento había recursos pendientes de resolver y aún no se había contrastado el cumplimiento del requisito del empadronamiento con el Ayuntamiento de Getxo.”

6. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daudela iritzita, gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1 artikulua), bai Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3 artikulua), bai eta Europako Gutun Sozialak berak (31. artikulua¹) ere, etxebizitzak alderdi soziala duela azpimarratu izan dute, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Azaroaren 27ko 25/2014 Legeak, Nazioarteko Itunei eta bestelako Akordioei buruzkoak, bere 29. artikuluan jasotzen du Estatuko botere publiko, organo eta erakunde guztien betebeharra dela Espainia alderdi duten indarrean dauden nazioarteko itunetako betebeharrak errespetatzea eta itun horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzea. Horri buruz, Konstituzio Auzitegiak adierazi du artikulua hori honi dagokiola: *“tanto al Estado (esta vez en el sentido estricto) como a las comunidades autónomas,”* quienes *“cada uno en el ámbito de sus respectivas*

¹ **Berrikusitako Europako Gutun Soziala.** [BOE, 139. zk., 2021eko ekainaren 11koa](#). 2021eko uztailaren 1ean sartu zen indarrean.



competencias, deben «respetar las obligaciones» asumidas por España en los tratados internacionales y «velar» por su adecuado cumplimiento”².”

Itun batek barne-araudia hartzeko beharra eskatzen duenean, aipaturiko 25/2014 Legearen 30.3 artikulua ezartzen du, era berean, autonomia-erkidegoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela Espainia alderdi duten itunak betearazteko. Hau da, nazioarteko itun batek ezartzen dituen betebeharrak betetzeko botere publikoen legeria edo aplikazio-egintzak behar direnean, autonomia-erkidegoek nahitaez hartu behar dituztela beren eskumenen esparruan.

Honela, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa etxebizitza egoki bat izateari buruzko errelatore berezi ohiak gogorarazi zuen nazioarteko giza eskubideei dagozkien arauak bete behar dituztela³ oinarrizko zerbitzuen prestazioak edo arautzeak, alokairurako diru-laguntzek eta etxebizitza-arloko programei eta politikei dagozkien etxebizitza egoki bat izateari buruzko beste edozein erabakik.

3. Bestalde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz agerian utzi du herri-agintariak premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarrizko eskubideak bermatzeko⁴.
4. Gainera, erreklamazio hau izapidetzeko duen garrantzia dela-eta, ezinbestekoa da gogoratzea nolako aurrerapena ekarri zuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioak⁵. Horren onespina oso lagungarria izan zen desgaitasuna beste era batera ulertzeko eta tratatzeko, alde batera utzita laguntza, medikuntza eta prebentzioa ardatz zituen ikuspegia, eta arreta pertsona desgaituen eskubideen ezinbesteko onarpenean eta gizartean gainerako herritarrek bezala erabat integratzeko ahaleginetan jarrita.

Hain zuzen ere, Konbentzioak berriaz onartzen du desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dutela bizitza-maila egokirako, eta horren barruan etxebizitza egokia edukitzea sartzeko da ez bairik gabe. Halaber, ezartzen da botere publikoek neurri egokiak abiarazi behar dituztela eskubide hori babesteko eta erabili ahal izateko, desgaitasuna dela-eta bereizkeriarik sor ez dadin.

² **Konstituzio Auzitegia.** Ekainaren 20ko 87/2019 Epaia. Zazpigarren oinarri juridikoa. [[ECLI:ES: KA:2019:87](#)].

³ **Nazio Batuen Erakundea. Batzar Nagusia.** Nazio Batuen errelatore bereziaren txostena, etxebizitzari buruzkoa, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa (Leilani Farha), 10. paragrafoa. Eskuragarri hemen: <https://undocs.org/es/A/HRC/28/62>

⁴ **Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.** Besteak beste, 2013ko martxoaren 14ko epaia (C-415/11) eta 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015).

⁵ **Nazio Batuen Batzar Nagusia.** Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/disabilities/documents/convention/convoptprot-s.pdf>. Espainiak 2008ko apirilaren 21ean berretsi zuen Konbentzioa (BOE, 96. zk.). Aukerako Protokoloaren berrespena: 2008ko apirilaren 22a (BOE, 27. zk.). Indarrean jarri: 2008ko maiatzaren 3a.



Beraz, botere publikoek bermatu behar dute pertsona desgaituek non eta norekin bizi diren hautatu ahal izatea, gainerako herritarrek egiten duten bezala.

Laburbilduta, Konbentzioak aldarrikatzen du pertsona desgaituek beren kabuz bizi izateko eskubidea dutela. Eta horretarako ezinbestekoa da etxebizitzarako eskubidea baliatu ahal izatea.

Hain zuzen ere, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordearen⁶ (CRPD, ingelesez) 5. ohar orokorrean etxebizitza seguru eta egokirako eskubidearen irismen material finkatzen da. Azpimarratzen du komunitateko alde guztietan aski etxebizitza egokitu egon behar direla baliagarri desgaitasuna duten pertsonentzat, bakarrik bizi direnentzat zein familia batekin bizi direnentzat, bizilekua hautatzeko eskubidea erabiltzeko aukera izan dezaten.

Horrez gainera, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordearen 6. ohar orokorrean gogorarazten da botere publikoek debekatu eta eragotzi egin behar dituztela pertsona desgaituei merkatuko alokairuko etxebizitzak eskuratzea galarazten dieten oztopoak eta prozedurak⁷.

5. Barruko ikuspegitik begiratuta, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan aitortzen da etxebizitza arloan eskumena duten botere publiko guztien jardueran oinarritzat hartu behar den agindua edo gidalerroa. Hain zuzen ere, Konstituzio-enkargu horrek behartzen ditu administrazio publikoak, maila desberdinetan, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea gauzatzeko beharrezko baldintzak sustatzera eta arau egokiak ezartzera, bereziki lurzorua erabilera interes orokorraren arabera arautuz, espekulazioa eragozteko.

Laburbilduz, Konstituzio-arau horrek bermatzen du bizilekua behar duten herritarren posizio juridikoa.

Dena den, Espainiako Konstituzioaren 148.1.3 artikuluan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikuluan ezarritako eskumen-banaketa kontuan hartuta, etxebizitza arloko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoak dauka (EAE), ez beste inork

⁶ **Nazio Batuak. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordea.** 5. ohar orokorra (2017), beren kabuz bizi izateko eta komunitateko kideak izateko eskubideari buruz. Eskuragarri hemen: https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/Download.aspx?symbolno=CRPD%2fC%2fGC%2f5&Lang=en

⁷ **Nazio Batuak. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordea.** 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta inor ez bereizteari buruzkoa. Eskuragarri hemen: https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/Download.aspx?symbolno=CRPD%2fC%2fGC%2f6&Lang=en





6. Horren ildotik, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 18ko 3/2015 Legea onetsi zuen, etxebizitzarena (hemendik aurrera EL). Lege horretan lehenengoz onartu zen EAEn etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzeko eskubide legala. Aldi berean, ELk ezartzen du EAEko administrazio publikoek abian jarri behar dituztela etxebizitzarako eskubidea erabili ahal izateko behar diren neurri guztiak.

Orobat, ELn botere publikoek etxebizitzaren arloko jardunean aplikatu beharreko printzipio gidariak ere ezartzen dira. Besteak beste, 2 f) artikuluan arautzen da eskatzaileek beren inguruabarretarako egokiena den etxebizitza lortzeko edo mantentzeko askatasuna.

Etxebizitza hautatzeko eskubidearekin estu lotuta, ELren 3 e) artikuluan arautzen da aintzat eduki behar dela lurralde-kohesioa gizarte-kohesioa modu orekatuan banatzeko EAEko lurraldean, eta horrela bizilekua hautatzeko eskubidea, mugikortasun geografikoa eta bizitza pertsonalaren oinarritzko inguruabarrak sustatu behar direla.

Gainera, horretarako, babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan honako printzipio hauek aplikatu behar dira: publikotasuna, berdintasuna eta lehia askea. ELren 7. artikulua araberan, hauxe da etxebizitzarako eskubidea: administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok etxebizitza duina, egokia eta irisgarria edukitzeko eskubidea.

7. Errentamendu-araubideko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduraren araubide juridikoa dela-eta, ELk ezartzen du kupoak finkatu behar direla beharrian sozialak asetzeko eta kohesioa bermatzeko.

Gainera, kontuan eduki behar da ELren bigarren xedapen iragankorrean berariaz ezartzen dela legea indarrean ipini aurreko erregelamenduak baliozkoak izango direla hari kontra egin ezean.

Horren ildotik, honako bi xedapen hauek dira esparru juridikoaren oinarriak: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren nahiz lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzkoa (hemendik aurrera 39/2008 Dekretua); Etxebizitza, Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitza eskatzaileei eta autonomia erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak eta zuzkidura bizilekuak esleitzeari buruzkoa (hemendik aurrera 2012ko urriaren 15eko Agindua).

Nolanahi ere, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak, kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza lankidetzakoak, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu xedapenak aldatzekoak, aurreko biak aldatu zituen azken xedapenetako bigarrenaren eta zazpigarrenaren bidez, hurrenez hurren, ELn babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeaz ezarritakoa aplikatzeko asmoarekin.



2012ko urriaren 15eko Aginduan 47 bis artikulua sartuz kupoen erreserben araubidea garatzen da. Hain zuzen ere, arau-xedapen horretan ezartzen da sustapen guztietan (araubide autonomikodun zuzkidura-bizitokiaren sustapenetan ez besteetan) kupo-erreserba bat egin behar dela.

Kupoak nola eratu behar diren 47 bis artikulua bigarren apartatua zehazten da batik batik. Honako hau adierazten da, hain zuzen ere:

- *"Kupoak behin-behineko izaeraz zehaztuko dira esleipen-prozeduraren hasiera-aginduan, betiere kolektibo bakoitzak osatzen duen **ehunekoak kontuan izanik, sustapena kokatuta dagoen udalerriko eta/edo eremu funtzionaleko etxebizitza-eskatzailen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen edo bizikidetzaren kopuru osoarekin alderatuta.**"⁸*

Hau da, adjudikazio-prozedurak eratzeko funtsezko elementuak Etxebide-Etxebizitza Babestuko Eskatzailen Erregistroan inskribatutako etxebizitza-eskatzailak dira.

Arartekoaren ustez hori bat dator txertatzen den ordenamendu juridikoarekin, zeren eta kupoak eratzeko hautatu den erreferentzia udalerrian edo eremu funtzionalean inskribatutako etxebizitza-eskatzailen kopurua baita, ez sustapena egiten den udalerrian erroldatutako pertsonen guztirako kopurua.

Horrenbestez, ez da inon aipatzen ezinbestekoa denik frogatzea eskatzailea adjudikazio-prozedura gauzatu nahi den udalerrian erroldatuta dagoela.

8. Hala ere, Arartekoak ikusi du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak baldintza modura udalerrian erroldatuta egon beharra ezartzen duela gizarte-etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozeduratan parte hartzeko.

Hori dela-eta, Arartekoak aipatu behar du 39/2008 Dekretuak 16.1 artikuluan babes publikoko etxebizitza eskuratzeko bete beharrekoez ezartzen duena:

- *"Euskadin erroldatuta egotea, gutxienez etxebizitzak izango duten titularretako bat."*

EAEEn erroldatuta egotea frogatu beharra zehatzago arautzen da 39/2008 Dekretuaren 18. artikuluan.

Beste alde batetik, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 12. artikulua c) eta d) letretan Etxebide-Etxebizitza Babestuko Eskatzailen Erregistroan inskribatzeko eskaera dela-eta ezartzen da inskripzioan zehaztu behar dela zer udalerritan eskatzen den etxebizitza. Izan ere, pertsona interesdunari ahalmena ematen zaio

⁸ Letra lodia Arartekoak jarri du.



errolatuta dagoen udalerrria, lantokia dagoen udalerrria eta beste bat, berak nahi duena, inolako murrizketarik gabe, izendatzeko.

Are gehiago, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 15.3 artikuluan arautzen da babestutako etxebizitzaren eskatzaile modura inskribatzean berariaz adierazi behar dela zein diren lehenesten diren udalerrriak, bai eta horien eremu funtzionalak ere.

Beraz, orain arte azaldutakoaren arabera Arartekoak uste du ordenamendu juridikoan ez zaiola eskatzen gizarte-etxebizitza bat errentamendu-araubidean adjudikatzea nahi duenari etxebizitza dagoen herrian edo udalerrian errolatuta dagoela frogatzeko.

9. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak hainbat aldiz gaitzetsi du legearen ikuspuntutik babes publikoko etxebizitza eskatzen duen pertsonak etxebizitza dagoen udalerrian errolatuta dagoela frogatu behar izatea⁹.

Zuzendaritza hori Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzari atxikita dago. Egin dituen legezketasun-txostenetan adierazi du udalerrian errolatuta ez dauden etxebizitza-eskatzaileak besterik gabe adjudikazio-prozeduretatik kanpo uztearen kontra dagoela, baldin eta aurretik gorago azaldutako erregelamendu-arautegia aldatzen ez bada. Hain zuzen ere, esan du adjudikazio-prozedura horietan baldintza hori ezartzea ez dagoela gaur egun ELren itzalpean.

Halaber, aztertu diren txostenetako argudio juridikoetan ñabardura hau egin du: etxebizitzak adjudikatzeko prozedura abiarazten duen aginduaren izaera juridikoa eta 2012ko urriaren 15eko Aginduarena ez dira bera. Izan ere, gogora ekarri du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 37.1 artikulua edukia, eta azpimarratu du 2012ko urriaren 15eko Agindua aldatzeko ez dela aski hitzarmen-akordioa.

Nolanahi ere, eta ondorio orokor gisa, ohartarazten du ezen bereizketa bat ezartzea zentzuzko arrazoirik eman gabe diskriminazioa izan daitekeela, baldin eta horren ondorioz eragozten bada herritar guztiek aukera berak edukitzea babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko.

⁹ **Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.** Araubide Juridikoko Sailburuordetza. Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza. Adierazitako jarrera honako legezketasun-txosten hauetan jasotzen da: DDCLN 96/2019, DDCLN 103/2019, DDCLN 109/2019, DDCLN 122/2019, DDCLN 123/2019, DDCLN 37/2020, DDCLN 1/2021, DDCLN 105/2021, DDCLN 106/2021, DDCLN 108/2021. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/informazioa/araubide-juridikoaren-sailburuordetzaren-txostenak/web01-s2jusap/eu/>



10. Hala ere, 2017ko azaroaren 2an sinatutako hitzarmenean Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EAK eta Getxoko alkateak adostu zuten adjudikazio-prozeduran parte hartzeko ezinbestekoa izango zela "Etxebide" Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egotea eta Getxon erroldatuta egotea azken hiru urteetan, gutxienez, edo frogatzea azken hamar urteetako bostetan inskribatuta egon dela.

Hitzartutako baldintza hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko martxoaren 23ko Aginduaren hirugarren ebazpenean ezarri zen (agindu horren bidez abian ipini zen Getxon, Iturribarrin, gizarte-babeseko 91 etxebizitza errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozedura).

Hala ere, 2021eko martxoaren 23ko Aginduaren lehen aurrekarian zehazten zen erreferentziako esparru juridikoa 39/2008 Dekretua eta 2012ko urriaren 15eko Agindua izan behar zirela.

11. Erreklamazio honetan aztertutako kasuan, kexagileak 4 etxebizitza egokitueta bat adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko eskaera egin zuen.

2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2 d) artikuluan ezartzen da zer baldintza bete behar diren aurrean aipatutako kupoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko. Hain zuzen ere, horren arabera honako hauek dira mugikortasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsonak:

- *"Desgaitasun-maila onartu, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskinean A edo B letrekin kalifikatuta dagoen desgaitasunen bat duten pertsonak, edo 7 puntu edo gehiago eskuratzen dituztenak Dtik Hrako letretan ezarritakoak batuz, eskumena duen foru-aldundi edo administrazioak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute."*

Puntu zehatz horretan, Arartekoak aurrekarietan azaldutakoa dio berriro, eta gogorarazten du kexa-espeditentean dagoen dokumentazioaren bidez kexagileak frogatu zuela %79ko desgaitasuna eta A hizkiak kalifikatutako mugikortasun-baremoa.

Horren gainean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez du ezer argudiatu kexagileak bere desgaitasuna (mugikortasun urri iraunkorarekin) behar bezala frogatzeari buruz. Hortaz, Getxo udalerriko erroldaziurtagiria ez aurkeztea izan zen adjudikazio-prozeduran parte hartzea eragotzi zuen oztopo bakarra.

Hori dela-eta, Arartekoaren iritziz Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez zituen behar bezala aztertu kexagilearen elkarbizitza-unitatearen inguruabar bereziak. Izan ere, ez zuen kontuan hartu 2012ko urriaren 15eko Agindua 26.3 artikuluan ("*Prozeduretarako xedapen orokorrak*") honako hau ezartzen duela berariaz:





- ***"Alokairu-araubidean egokitutako etxebizitza bat eskatzen duten mugikortasun mugatuko desgaituek aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan egindako esleitze-prozeduretan parte hartzeko.."***¹⁰

Neurri honen helburua da pertsona horientzat egokitutako etxebizitzaren urritasuna arintzea, mugikortasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsona desgaituei aukera ematen baitie EAEko udalerritan guztietan egiten diren sustapenetan parte hartzeko.

Laburbilduta, prozedura abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren aginduan bildutako akordioan ez ziren ongi zaindu mugikortasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsonen eskubideak, Getxoko udalerriko gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozeduran parte hartzea eragozten baitzitzaien.

Arartekoaren ustez, administrazio publikoek akordioak egiten dituztenean babes publikoko etxebizitzak sustatzeko, babes publikoko etxeak adjudikatzeko arauetan banakako eskubideez ezartzen dena errespetatu behar dute, eta kontuan eduki behar dute lurralde-kohesioa gizarte-kohesioa mantendu beharra, bai eta mugikortasun geografikoa ere.

Beraz, mugikortasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsonentzako kupoko etxebizitza egokituak adjudikatzeko prozeduran parte hartu ahal izateko udalerritan erroldatuta egon beharra ezartzean ez zen bete etxebizitzaren arloko arautegian ezarritakoa, aurrean azaldu den bezala.

12. Oro har, Arartekoak positibotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat legez okupatzea bermatze aldera egindako ahalegina.

Hala ere, Arartekoak uste du udalerritan jakin batean erroldatuta egon beharra ezartzeak murriztu egiten duela "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako pertsonen etxebizitza duin, egoki eta irisgarriko eskubidea.

Kontuan eduki behar da pertsonak geroz eta gehiago mugitzen direla, egunero ibili behar izaten baitute bizi diren herritik lan egiten edo ikasten ari diren herrira eta handik atzera etxera joan-etorrian. Gainera, ELk ezartzen du etxebizitzarako eskubidea tokiaz gaindikoa dela. Bada, horren arabera, udalerritan batean bizitzea ez da izan behar *sine qua non* baldintza babes publikoko etxebizitza eskuratu ahal izateko.

¹⁰ Letra Iodia Arartekoak jarri du



Gainera, etxebizitza eskuratzeko muga hori are larriagoa da etxebizitza behar duena mugikortasuna modu iraunkorren murriztuta duen pertsona desgaitua denean. Merkatu askean etxebizitza egokituaren eskaintza urria da, eta dauden etxebizitzak garestiak dira. Horregatik, babes publikoko etxebizitzak ezinbestekoak dira etxebizitza duin, egoki eta irisgarria edukitzeko eskubidea bermatzeko.

Orobat, ez da ahaztu behar etxebizitza-kostuen zama astunagoa dela desgaitasuna duten pertsonentzat. Hain zuzen ere, Europako Parlamentuak adierazi du kostua % 12,5 handiagoa dela desgaituentzat¹¹.

Horrenbestez, Arartekoaren ustez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jarduna ez zitzaion behar bezainbat lotu etxebizitzaren arloko arautegiari, ez baitziren aintzat hartu mugikortasuna modu iraunkorren murrizten duen desgaitasuna onartuta duten pertsonen etxebizitza-eskaerak¹².

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutakoa kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak aztertzea Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak Getxoko udalerriko gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko kexagileak aurkeztutako eskaera baztertzeko erabakia.

Nolanahi ere, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak aldatu egin behar lukeela etxebizitzak sustatzeko hitzarmenetan erroldatuta egon beharra ezartzea; izan ere, baldintza horrek ez du lege-babesik, eta lehia askearen eta etxebizitza hautatzeko askatasunaren printzipioen kontrakoa da.

Azkenik, Arartekoak berriz ere esan behar du ezinbestekoa dela bermatzea mugikortasuna modu iraunkorren murriztuta duten pertsonen EAEko etxebizitza egokituak adjudikatzeko prozedura guztietan parte hartu ahal izatea, sustapena egiten den udalerrian erroldatuta egon zein ez egon.

¹¹ **Europako Parlamentua.** Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, guztientzako etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeari buruzkoa. Eskuragarri hemen: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2021-0020_ES.pdf

¹² Ildo horretatik, ikusi Giza eskubideen Europako Auzitegiak 2016ko martxoaren 22an *Guberina c. Kroazia* auzian emandako epaia. Eskuragarri hemen: <https://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-161530>

